

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Ixone Santxez Encinas

*Usurbil,
Gipuzkoa
(2004)*

Aurkibidea



Biografia



Usurbildarra, ama bertakoa du eta aita Caceresen jaioa baina Usurbilera mugitutakoa, euskaldun berria. Elkarrizketaren unean Lasarte-Oriako Oriarte institutuan zebilen, Batxi-2 egiten, eta futboleko jokatzaren zuten. Eneka Muñoz lagunarekin batera egin genion elkarrizketa, hitanoari eta aisialdiko hizkuntza-ohiturei buruz, institutuan. Aurreko ikasturtean noka ikastaro batean hartu zuten parte. Lasarte-Oriako Udalarentzat egindako elkarrizketa, Ele-meleka proiekturako.

Zintak

USU-091

- **Proiektua:** Gazte gara gazte
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2022-02-10
- **Iraupena:** 67 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Idoia

Pasarteak

1. Mutilek hika Usurbilen

- **Erref:** USU-091/003
- **Iraupena:** 0:00:40. **Hasi:** 00:03:10. **Bukatu:** 00:03:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Usurbilen neskek ez, baina mutilek hika erabiltzen dute. Lasarten euskara gutxiago erabiltzen da Usurbilen baino eta hika are gutxiago.</p>

2. Noka ikastaroa institutuan; Usurbilgo egoera

- **Erref:** USU-091/005
- **Iraupena:** 0:04:09. **Hasi:** 00:04:00. **Bukatu:** 00:08:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

<p>Noka ikastaroa beraiek proposatu zuten institutuan, eta Usurbilgo neskak apuntatu ziren. Usurbilen hitanoaren egoera zein den: neskek ez dute erabiltzen, mutilek bai. Neskek zergatik ez duten erabiltzen: mutilen kontu bezala ikusten dutelako, maskulinoa, lotsa ematen die... Ixoneren amak noizean behin egiten du.</p>

3. Zergatik noka ikasi?

- **Erref:** USU-091/006
- **Iraupena:** 0:02:14. **Hasi:** 00:08:09. **Bukatu:** 00:10:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

<p>Zergatik proposatu zuten hika ikastaroa. Beraien artean hika hitz egiteko eta mutilei erantzuten jakiteko. Mutilei ez zaie ateratzen berarei hika egitea, baina egiten dietenean askotan toka. Hitanoak ematen duen gertutasuna ere bilatzen zuten.</p>

4. Ikastaroa nolakoa izan zen

- **Erref:** USU-091/007
- **Iraupena:** 0:03:23. **Hasi:** 00:10:23. **Bukatu:** 00:13:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Ikastaroa nolakoa izan zen. Ordu eta erdiko hiru saio izan ziren, eguerdian. Ez zen ordurik onena, eta teoria pixka bat astuna egin zitzaien. Zerbait praktikoa nahiago zuten. Hala ere, teoriak balio izan die. Talde handiagoa balitz hobeto izango litzakeela diote. Gehiago dakite toka noka baino, mutilei entzunda, Usurbilgoak direlako.</p>

5. Hitanoa beraien familietan

- **Erref:** USU-091/008
- **Iraupena:** 0:02:56. **Hasi:** 00:13:46. **Bukatu:** 00:16:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Familian hitanoak duen presentziaz. Ixonek ama eta amona entzuten ditu noka hizketan. Enekaren amonak ere erabiltzen du, baina bere etxean gaztelania erabiltzen da gehiago (aitak ez du euskara menperatzen).</p>

6. Zergatik joan da galtzen noka?

- **Erref:** USU-091/010
- **Iraupena:** 0:03:03. **Hasi:** 00:17:10. **Bukatu:** 00:20:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

<p>Hitanoa zakartasunarekin lotzen dute, eta neskek feminitatea galtzen dutela ematen du hika hitz egiten badute. Beraiei horregatik gustatzen zaie: 'bastoa' delako eta informala delako. Bazilatzeko erabiltzen dute hika.</p>

7. Hika esaten dituzten esaldiak

- **Erref:** USU-091/011
- **Iraupena:** 0:02:54. **Hasi:** 00:20:13. **Bukatu:** 00:23:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Hika erabiltzen dituzten esaldiak aipatzen dituzten. "Ze esatek", "juango al gaittun?"... Lau aditz erabiltzen dituzte. Aditzak laburtzeari buruz. Kaleko hizkera interesatzen zaie.</p>

8. Noka, ahalduntzeko tresna?

- **Erref:** USU-091/012
- **Iraupena:** 0:02:04. **Hasi:** 00:23:07. **Bukatu:** 00:25:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

<p>Noka jakitea ahalduntzeko tresna moduan ikusten dute. Mutilek erabiltzen dute, neskek zergatik ez? Berdintasuna lortzea ondo legoke.</p>

9. Hika egitea positiboa orain

- **Erref:** USU-091/013
- **Iraupena:** 0:03:06. **Hasi:** 00:25:11. **Bukatu:** 00:28:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Hitanoa baserritarra izatearekin lotzen zuten garai batean eta desprestijiatuta zegoen. Beraien ikuspegia ematen dute: ez dute baserriarekin lotzen, eta uste dute euskaraz bizitzeko erraztasuna dutenek darabiltela hika. Ikuspegi positiboa dute gaur egun: balio positiboa da hika jakitea.</p>

10. Hitanoaren "garbi puntua"

- **Erref:** USU-091/014
- **Iraupena:** 0:01:09. **Hasi:** 00:28:17. **Bukatu:** 00:29:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Hitanoak errejistro informal bat ematen du, eta "garbi puntu bat" ematen du: erdarako "jo, tia" bezalako esamoldeak gutxiago erabiltzen dira.</p>

11. Hika erakargarria gazteentzat

- **Erref:** USU-091/016
- **Iraupena:** 0:03:27. **Hasi:** 00:29:40. **Bukatu:** 00:33:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Kultura » Aisia » Hedabideak » Telebista
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Hika erakargarria da gazteentzat. Aberastasuna eta gertutasuna ematen du. Nola ipini modan? Kontsumoa inportantea dela diote. "Erlauntza" filma aipatzen dute: bertan noka hitz egiten dute, natural. Zaila da telebistan erabiltzea, hala ere. Transmisioa da giltza.</p>

12. Noka, ahalduntzeko tresna II

- **Erref:** USU-091/018
- **Iraupena:** 0:02:23. **Hasi:** 00:34:06. **Bukatu:** 00:36:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

<p>Hitanoa kalean ikasten da gaur egun, mutilek beti izan dutelako aisialdian horretarako eremu bat. Enekak bere amonaren kasua kontatzen du. Nokaren transmisioa eten egginzen eta zaila da berreskuratzea. Oraindik ere gizonezkoak dira nagusi taberna giroan, eta inportantea da emakumeak bere tokia hartzea.</p>

13. Erabilera-ohiturak malgutzearen alde

- **Erref:** USU-091/020
- **Iraupena:** 0:03:03. **Hasi:** 00:36:48. **Bukatu:** 00:39:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Hitanoaren erabilera-ohiturak malgutzearen alde daude. Sustatu nahi baldin bada, muga batzuk aldatu egin behar direla diote. Ixonek dio bere amak errespetu falta bezala hartzen duela berari hika egitea.</p>

14. Usurbilen hika ikastaroa, baina ez oso erakargarria gazteentzat

- **Erref:** USU-091/022
- **Iraupena:** 0:03:21. **Hasi:** 00:40:53. **Bukatu:** 00:44:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Usurbilen hitanoa bultzatzeko ekimenak egiten ari dira, baina ikastaroetara beti berak apuntatzen direla uste dute, jada badakitenak eta ez hutsetik hasten direnak. Errespetua ematen diete helduek. Serioegiak iruditzen zaizkie halako ikastaroak gazteentzat. Liburuxka ere atera zuten.</p>

15. Euskaraz bizi dira, baina erdaraz asko kontsumitzen dute

- **Erref:** USU-091/023
- **Iraupena:** 0:02:29. **Hasi:** 00:44:14. **Bukatu:** 00:46:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua

Laburpena:

Euskaraz bizi dira. Eneka etxean ez, baina kalean bai. Eskolan eta futbolearen ere bai gehiena. Eneka badauka euskaraz hasteko joera, baina beti erdaraz dabilzanekin zaila da jarrera mantentzea.

16. Telebistan euskaraz eskaintza urria

- **Erref:** USU-091/024
- **Iraupena:** 0:04:42. **Hasi:** 00:46:43. **Bukatu:** 00:51:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Kultura » Aisia » Hedabideak » Telebista

Laburpena:

Euskaraz kontsumitzea zaila da, telesail eta programa gutxi daudelako. "Gu eta gutarrak" gustatzen zitzairen. "Goazen"... Pena da "El conquis" erdaraz izatea. ETBko erabaki batzuk auzitan jartzen ditu Enekak. "Wazemank" bezalakoak gustatzen zaizkie.

17. Gustuko euskal musika taldeak

- **Erref:** USU-091/025
- **Iraupena:** 0:02:53. **Hasi:** 00:51:25. **Bukatu:** 00:54:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

'Berri txarrak' entzuten dute, 'Ken zazpi'... Gustuko taldeak aipatzen dituzte. "Chill Mafia" taldea. Regetoia euskaraz. Gero eta musika estilo gehiago daude euskaraz.

18. Euskaraz irakurtzeari buruz

- **Erref:** USU-091/026
- **Iraupena:** 0:03:43. **Hasi:** 00:54:18. **Bukatu:** 00:58:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Irakurtzea

Laburpena:

Literatura. Ez dute asko irakurtzen. Euskaraz irakurtzea arrotzagoa egiten zaie, tristea izan arren. Euskara batua formalegia egiten zaie, pisutsua. Klaseko liburuez aparte, ez dute askorik irakurtzen. Ohitura-falta.

19. Whassapak euskaraz

- **Erref:** USU-091/027
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:58:01. **Bukatu:** 01:00:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Teknologia berriak eta sare sozialak

Laburpena:

Whassapa euskaraz erabiltzen dute. Instagrama ezin da euskaraz ipini. Tik Tok-en ia dena gaztelaniaz da. Twitter-en jende euskalduna jarraitzen dute.

20. Hitanoa ikastetxean

- **Erref:** USU-091/030
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 01:05:28. **Bukatu:** 01:06:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Ikastetxean usurbildarrek soilik egiten dute hika, eta mutilek. Lasartekoek usurbildarrek kutsatuta, baina gutxi.</p>

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-11-23

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com